

MAIATZAK 1

Langileok

EUSKAL ESTATUA

BURUJABETZA OSOA ALDAKETA SOZIALERAKO

Aurtengo hau izan daiteke garai berri baten atariko Maiatzaren Lehena. Euskal Herrian eta gure mugetatik harago ematen ari diren gertakariak aukera berriak zabaltzen dituzte: Catalunya deskonexio prozesua, gurean armagabetze prozesua, mugimendu independentista berri eta berritzailea erai-ki-tzeko egin den apustua, euskal sindikatuen artean elkar-lana berreskuratzeko hasi dugun bidea... estatus politikoak berritzeko ekimenak martxan diren honetan, Euskal Herrian burujabetza prozesua abiatzeko baldintzak badaude. Egin beharreko bidea eta emaitzak lehiatzea dagokigu orain.

Euskal Herrian finkatu ditugu oinarrizkoak diren jarrerak: erabakitze eskubideak ardazu behar du aldaketa. Eremuz eremu burutuko dugu aldaketa, erabakitze ahalmen gehien ematen duen estatus politikoaren alde borrokatuz eremu bakoitzean. Prozesu demokratikoa izan behar du, Herriari hitza emanez eta Herriaren hitza errespetatuz burutu behar dira.

Estatus berriek egoera sozioekonomikoa goitik behera aldatzeko ahalmen eta bitartekoak ekarri behar dizkigute; gure klase interesak defendatzeko baldintza politiko eta instituzional demokratikoak, politikak aldatu ezean ez baitago aldaketa sozialik. Burujabetza aldarrikatzen dugu lan mundua aldatzeko eta egoera soziala iraultzeko; negoziazio kolektiborako euskal markoa bermatzeko, burujabetza euskal pentsio sistema baten alde, Euskal Herri feminista eraikitze, lan munduan prekaritatearekin bukatzeko, 35 orduko lanastea eta 1200 euroko gutxieneko soldata ziurtatzeko, gure osasuna eta bizitza arriskuan jarri gabe lan egiteko eskubide izan dezagun, sektore publiko indartsu baten alde eta enplegu publikoaren defentsan, edota euskaraz lan egiteko dugun eskubidea ziurtatzeko.

LAB sindikatuan, gure eremutik, aldaketa soziala eta burujabetza prozesua elkarlotuz sustatu eta uztartzea izan da gure helburua azken urteotan. Ezetz esan diogu langileok prekaritateara, pobrezia, miseria kondentzen gaituen hazkunde ekonomiko honi. Konfrontazio garai berri bat ireki dugu, eta eremu sindikalean behar-beharrezkoa dugun elkarlana berreskuratzeko ahaleginetan dihardugu.

Mapa instituzionalean garai berria irekitzeko aukerak sortu dira: Ipar Euskal Herrian Herri Elkargoaren sorrera, Nafarroan Aldakaterako Gobernuaren eraketa, EAEn erabakitzeko eskubidearen aldeko gehiengoa... Estatus politiko berriaren

etabaida irekia dago EAEn eta ireki behar da Nafarroan. Institutuzioak aldaketaren zerbitzura jarri behar dira, Herriak bere etorkizuna erabaki dezan. Aukera handiak eskaintzen dituen momentua dugu, Klase bezala eta Herri gisa egin behar dugun bidean aurrera egiteko.

Burujabetza prozesu eratzaila eta eraldatzailea behar dugu, Euskal Estatura eramango gaituen bidea. Eta zentzu horretan ataka batean gaude: edo aldebakarreko prozesua abiatu eta burujabetza osoa eskuratzen dugu, edo EAJ-PSE-PP aliantzaren eskutik 78ko iruzurra errepikatuko digute, egun indarrean dauden estatus politikoak eskundutza gutxi batzuekin makilatuz. Autonomismoaren garaia agortua dago, eta 40 urteren ondoren gure Herriaren nazio aitortzarik ere oraindik lortu ez duen EAJ, beste behin, euskal herritarroi iruzur egin nahian dabil.

Iruzur egitea da burujabetza aldarrikatzea politika neoliberalak babesten diren bitartean; ezin da burujabetzaren bidea egin, instituzioetatik politika neoliberalak bultzatzen diren bitartean. Neoliberalismoak merkatua lehenesten du beti, eta burujabetza prozesuak Herria erdian jartzea eskatzen du.

Iruzurra da hemen bide propioak aldarrikatzea eta aldi berean Moncloako sukaldean PPren Gobernuarekin ziklo politiko berri bat egosten aritzea; iruzur borobila, lan eskubideen eta babes sozialaren (pentsio sistema etab.) defendatzaile agertzea, Madrilatik datozen erreformak baliatzen diren bitartean eta patronalarekin akordio antidemokratikoak bultzatzen direnean; iruzurra, hezkuntza sistema propioa aldarrikatzea eta aldi berean LOMCEren aurrean eskuloturik agertzea; iruzurra, industriaren eta enpleguaren aldeko diskurtsoa egitea, prekaritatean sakondu, zerbitzuak pribatizatu eta merkantilizatzen direnean.

Ez dugu iruzur gehiagorik onartuko. Politika instituzionalak aldatzeko mobilizazioaren bidea indartzera goaz. Euskal Herrian erabakitze eskubideak ardazu behar du aldaketa, Herriaren hitza errespetatuz. Herria martxan jartzea izango da prozesu soberanistaren palanka.

Euskal Langileok garai berri baten bila goaz, langileon garaia, burujabetzaren garaia, aldaketa sozialaren garaia! Iruzurrik ez, langileok Euskal Estatu!



BILBO. Zabalburu, 12:00

BAIONA. Geltokia, 11:00

IRUÑEA. Gaztelu plaza, 12:00

MAIATZAK 1

langileok

EUSKAL ESTATUA

SOBERANÍA PLENA PARA EL CAMBIO SOCIAL

Puede que este año nos encontremos ante el Primero de Mayo previo a un nuevo tiempo. Los acontecimientos que se están produciendo en Euskal Herria y fuera de nuestro país abren nuevas oportunidades: por un lado el proceso de desconexión de Catalunya, y por otro, en nuestro País, el proceso de desarme, la apuesta por conformar un movimiento independentista renovado, el camino por recuperar el trabajo en común entre los sindicatos vascos... existen condiciones para poner en marcha el proceso soberanista en Euskal Herria, teniendo en cuenta los debates abiertos para renovar los estatus políticos. Ahora nos corresponde luchar para recorrer el camino y alcanzar nuestros objetivos.

En Euskal Herria hemos asentado los principios básicos: el cambio debe girar en torno al derecho a decidir. Materializaremos el cambio ámbito a ámbito, luchando en cada ámbito en favor del estatus político que mayor capacidad de decisión contemple. El proceso ha de ser democrático, dando la palabra al Pueblo y respetando la palabra del Pueblo.

Los nuevos estatus deben proporcionarnos capacidades e instrumentos que permitan revertir la situación socioeconómica: condiciones democráticas a nivel político e institucional para defender nuestros intereses de clase, puesto que el cambio social no es posible sin modificar las actuales políticas. Apostamos por la soberanía para transformar el ámbito laboral y cambiar la situación social: soberanía para garantizar el marco vasco de negociación colectiva; para obtener un sistema vasco de pensiones; para construir una Euskal Herria feminista; para acabar con la precariedad laboral; para garantizar la jornada semanal de 35 horas y un salario mínimo de 1.200 euros; para tener derecho a trabajar sin poner en peligro nuestra salud ni nuestra vida; para configurar un sector público fuerte y defender el empleo público; soberanía para garantizar el derecho que tenemos a trabajar en euskara.

En los últimos años, LAB ha tenido como objetivo impulsar desde su ámbito el cambio social y el proceso soberanista, ambos de forma entrelazada. Nos hemos posicionado en contra del crecimiento económico que condena a las y los trabajadores a la precariedad, a la pobreza y a la miseria. Hemos abierto un nuevo tiempo de confrontación y trabajamos por recuperar las alianzas necesarias en el ámbito sindical.

Se han abierto oportunidades en el mapa institucional para iniciar el nuevo tiempo: se ha creado la mancomunidad de

Ipar Euskal Herria, se ha constituido en Nafarroa el Gobierno del Cambio, existe en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) una mayoría a favor del derecho a decidir... El debate del nuevo estatus político está abierto en la CAV y debemos abrirlo en Nafarroa. Las instituciones han de ponerse al servicio del cambio, debe ser el Pueblo quien decida su futuro. El momento que vivimos nos ofrece grandes oportunidades para seguir adelante en el camino que queremos construir como Clase y como Pueblo.

Necesitamos un proceso soberanista constituyente y transformador que nos conduzca hacia el Estado Vasco. Y, en este sentido, estamos en una disyuntiva: o iniciamos el proceso unilateral y logramos plena soberanía, o se repetirá el fraude de 1978 de la mano de la alianza PNV-PSE-PP, maquillado con unas pocas competencias. La época del autonomismo está agotado, pero el PNV pretende volver a engañar a la ciudadanía vasca cuando, 40 años después, aún no ha conseguido el reconocimiento de nuestro Pueblo como nación. Es un fraude reivindicar la soberanía mientras se apoyan políticas neoliberales: no es posible recorrer el camino hacia la soberanía mientras se impulsan políticas neoliberales desde las instituciones. El Neoliberalismo prioriza siempre al mercado, y en el proceso soberanista el pueblo ha de estar en el centro.

Es un fraude reclamar mecanismos propios y, al mismo tiempo, estar cocinando un nuevo ciclo político en la Moncloa junto al Gobierno del PP; es todo un fraude presentarse como garante de derechos laborales y de protección social (sistema de pensiones, etc) mientras se aplican reformas provenientes de Madrid y se promueven acuerdos antidemocráticos con la patronal; se trata de un fraude reivindicar un sistema educativo propio y tener las manos atadas ante la LOMCE; y es igual de fraudulento tener un discurso en favor de la industria y el empleo cuando se profundiza en la precariedad y en la privatización y mercantilización de servicios.

No aceptaremos más fraudes. Reforzaremos la movilización para cambiar las políticas institucionales. El derecho a decidir ha de ser la base del cambio en Euskal Herria, se tiene que respetar la palabra del Pueblo. La movilización popular será la palanca del proceso soberanista. La clase trabajadora avanza hacia un nuevo tiempo. Hablamos de un nuevo tiempo para las y los trabajadores, un nuevo tiempo para la soberanía, para el cambio social. Iruzurrik ez, langileok Euskal Estatua!



BILBO. Zabalburu, 12:00

BAIONA. Geltokia, 11:00

IRUÑEA. Gaztelu plaza, 12:00